

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

**ARAUA MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,
UDAL JABARI PUBLIKOA ERABILTZEARI ETA USTIAPEN BEREZIARI DAGOZKION
TASAK ARAUTZEKO ZERGA ORDENANTZARI**

EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkeztu dituen araua aldatzeko ondoko proposamenak, helburu izanik euskararen aurrerabidea laguntzea Donostian:

1.- Aldatzea jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza, 12. artikulua 3. atalaren a) letra honela MOLDATUTA:

a) Udal baimena lortzea. Eskatzaileak zehaztuko duen jarduerarako baimenaz gain, arauaren eranskineko C) ataleko jardueren kasuan, Euskara Zerbitzuaren aldeko txostena beharko du fidantza berreskuratzeko, Euskararen Erabilera arautzen duen Udal Ordenantzako 25. artikulua 3. atalaz eskatu bezala.

2.- Aldatzea jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzaren eranskina, 2. atalaren C) letrako 34. epigrafea honela MOLDATUTA:

- 1. % 30eko tarifa murriztua merkataritza eta ostalaritza establezimenduei, baldin eta beraien produktuak zoru publikoan erakusteko euskarriek euskarari lehentasuna ematen badiete.*
- 2. % 30eko tarifa murriztua lurzoru publikoa erabiliz hesi, aldamiu eta eskoretan jartzen diren publizitateetan Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan errotulaturik badago, bi hizkuntzen kopurua hein berekoa izanik. Tarifa murriztua % 40koa izango euskarri horietan zabaltzen den publizitatea lehentasunez euskaraz errotulaturik badago.*

Donostia, 2022ko abuztuaren 3an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea